

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Mugaz haraindiko ALERT proiektu berria aurkeztu da, arrisku espezifikoaren aurrean erantzuna hobetzeko eta hondamendi naturalak kudeatzeko

Nafarroako Gobernuarekin batera, Pirinio Atlantikoetako su-hiltzaileek, Aragoiko Gobernuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartu dute

Asteartea, 2018.eko apirilak 17

Gaur goizean, Baionako Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseiluan egin da ALERT (Mugaz haraindiko Arriskuen aurka Espazio komunean aurre hartzea eta borrokatzea) proiektua ezagutzera emateko bilera; bertan parte hartu dute Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Su-hiltzaileek, Pirinio Atlantikoetako Suteen eta Sorospenen Departamentu Zerbitzuak (SDIS 64), Aragoiko Gobernuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.



ALERT proiektuaren irteera-bileran bildutakoak, Baionan.

Nafarroako Gobernutik honako hauek izan dira bileran: Barneko zuzendari nagusia, Agustín Gastaminza; Nafarroako Su-hiltzaileen Zerbitzuko zuzendaria, Javier Bayona; Su-hiltzaileen Zerbitzuko Prestakuntza Ataleko burua, Carlos Adín; eta Su-hiltzaileen Zerbitzuko ofiziala, José Javier Boulandier.

Mugaz haraindiko ALERT proiektua hautatua izan da INTERREG proiektuen bigarren deialdiko bigarren fasearen ondoren, eta, gaur, ezagutzera eman da bazkide guztien aurrean, Pirinio osoan zehar praktikak trukatzeko sustatzeko helburuarekin. Lurraldean arrisku mordoaren mende aurkitzen da, arrisku naturalak zein giza jarduerarekin zerikusia dutenak. Ondorioz, koordinazio operatiboa, orain arte eskasa, eta pertsonentzat edo ondasunentzat arriskuren bat duten egoeren aurreko erantzuna hobetu nahi dira.

Hainbat lankidetzaz ardatz

Lankidetzako hainbat ardatz identifikatu dira; hala nola, deien plataformen arteko konexioa koordinazioa eta informazioaren trukea hobetzeko, denek esku hartzeko teknikak harmonizatzea edo eremu-aktoreen lankidetzaz hobe ezartzea.

Egungo egoerara gehiago egokitzen den erantzuna emateko, mugaz haraindiko zona honetan gerta daitezkeen arriskuak hobeto identifikatu nahi dira, jardunbide egokiak trukatu, elkarrekin maniobrak egin eta teknika operatiboak harmonizatu, gertaera gertatzen den lekutik aginte-katera bitarte. Halaber, trebetasun berriak edo materialak perfektionatu nahi dira, lan-taldeek elkar ezagutu eta denek batera lan egin dezaten.

Larrialdietako plataforma ezberdinen artean informazioa trukatzeko eta arrisku potentzialak izan ditzaketen lekuak identifikatzeko lan egin nahi da gaur. Besteak beste, Jaizkibel mendia, Donejakue Bidea, mugaren inguruan kokatutako salmentak edo eski-estazioak aipatzen dira. Beraz, eremu horietarako elkarrekin jarduteko planak ezarri nahi dira.

Era berean, arrisku naturalen aurreikuspena eta prebentzioa hobetzea da helburua; horien artean ondorengoak nabarmentzen dira: arrisku sismikoak, uholdeak edo mendiko erreskateak eta hiri-eremuetako arriskuen ezagutza, bereziki Hendaia-Irun-Hondarribia inguruan, biztanle ugariako lekua baita.

Landu beharreko beste eremu bat basoko suteen ingurukoa da, eta arlo horretan instituzioen arteko lankidetzak hobetu nahi da.

Inbertsio komuna

Proiektuan gaur hasiko dira modu aktiboan lan egiten. Bertan, denentzako materiala erosteko inbertsio-zati bat egin da: aginte-ibilgailu egokituak, komunikazioen hobekuntza, irratiak, sorospen-ekipoak eta dronak. Halaber, mugaz haraindiko lankidetzak-zentroa abian jarriko da, eta hori Donibane Garazin / Saint-Jean-Pied-de-Porten kokatu nahi da; hori guztia 2018-2020 bi urtekoan egingo da.

Proiektu honetarako inbertsioaren %65a Eskualde Garapeneko Europar Funtsak (FEDER) finantzatuko du, Interreg Programaren esparruan (POCTEFA 2014-2020). Programaren helburua da Espainiako, Frantziako eta Andorrako mugaz haraindiko zonetan integrazio ekonomikoa eta soziala indartzea. Era berean, jarduera ekonomikoak, sozialak eta ingurumen-arlokoak garatu nahi ditu, elkarren arteko estrategien bitartez, lurraldearen garapen iraunkorra sustatzearekin batera.